



BARNE ARAUDIA

**“MUTUALIA” Gizarte Segurantzarekin lankidetzan duen 2. zk.
Mutuaren ZUZENDARITZA BATZARRAREN ANTOLAKUNTZA
ETA FUNTZIONAMENDUARENA**







Í AURKIBIDEA

HITZAURREA

ATARIKO TITULUA

1. artikulua. Definizioa eta xedea	4
2. artikulua. Irismena.	6
3. artikulua. Bertsio elebiduna eta hedapena	6
4. artikulua. Arauen lehentasuna eta interpretazioa	7
5. artikulua. Onestea, indarraldia eta aldatzea	7

I. TITULUA.- PRINTZIPIOAK ETA ESKUMENAK

6. artikulua. Printzipio orokorrak	8
7. artikulua. Jarduteko printzipioak	9
8. artikulua. Zuzendaritza Batzarraren eskumenak	10

II. TITULUA.- ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

9. artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren osaera eta kideak eta ordezkariak hautatzeko arauak	12
10. artikulua.- Zuzendaritza Batzarreko karguak	14
11. artikulua.- Interes-gatazken kasuetan jarduteko arauak	16
12. artikulua.- Zuzendaritza Batzarreko kideen eta kargu horien ordezkarien kargu-uztea	17
13. artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren bilerak	18
14. artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren bileretara bertaratzeagatiko konpentsazioak	20
15. artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren aktak eta akta-liburua	20



HITZAURREA

“MUTUALIA” Gizarte Segurantzarekin lankidetza duen 2. zk.ko Mutuaren (aurrerantzean, “Mutualia”, “Mutua” edo “Erakundea”) Zuzendaritza Batzarrak, erakundearen Gobernu Korporatiboan integratutako gobernu-organoa den aldetik, Mutualiaren Eginkizunetik abiatu eta bere Balioak eta Kode Etikoa onartu ondoren, Gobernu Korporatiboaren Politika Orokorra zehaztu eta onartu zuen 2019ko uztailaren 9an (aurrerantzean, “Politika Orokorra”). Horrek Eginkizunean, Balioetan eta Kode Etikoan jasotako printzipioak garatzen ditu, Gobernu Sistema Korporatiboaren funtsezko pieza da, eta Mutualia osatzen duten pertsona fisiko eta juridikoen jardueren eta portaeren funtsezko alderdiak biltzen ditu, bai eta material horretan Gizarte Segurantzarekin lankide den mutua gisa dituen konpromisoak ere.

Politika Orokorrean, Mutualiako gobernu-organoen eta parte-hartzekoen printzipio orokorrak eta jarduera-printzipioak jasotzen, definitzen eta mugatzen dira; horietara egokituko dira haien portaera, jarduera eta erabakiak, eta jarduera-gida Kode Etikoan ezarritakoa izango da, beren jardueraren garapenean portaera etiko eta arduratsuaren berme gisa.

Zuzendaritza Batzarra –bere administrazioaz eta ordezkaritzaz arduratzen den mutuaren zuzeneko gobernu kide anitzeko organoa den aldetik– eta bere batzorde delegatu betearazleak eta teknikoak erakundearen gobernantza onaren edo administrazio onaren funtsezko oinarriak dira, eta hori modu zabal eta zehatzean garatuta dago Politika Orokorrean. Horrek barnean hartzen du, besteak beste, kideen eta karguen betebeharrak, haien hautapena eta izendapena, horiek berritzeko planak, Zuzendaritza Batzarreko presidentea eta batzordeak Zuzendaritza Batzarraren gainbegiratzearen mende daudela bermatzen duen kontrapisuen sistema, baita bileretako gobernu egokirako arau batzuk ere.

Aipatutako Politika Orokorra onartu ondoren, Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailletza Nagusiak mutualitateei jakinarazten die “OHARRA, GIZARTE SEGURANTZAREKIN LANKIDETZA DUTEN MUTUEN BARNE KONTROLAREN ANTOLAKUNTZAKO ZENBAIT ALDERDI OROKORREN EBALUAZIOARI ETA ENPRESA ELKARTUAK ETA ATXIKITAKO LANGILEAK ERAKARTZEKO DEBEKUA BETETZEKO ERAGINKORTASUNARI BURUZKOA”. Mutua guztietako zuzendaritza-batzarretako kideek betetako galdetegiak lortutako emaitzen ondorioa da; izan ere, 2017. ekitaldiko kudeaketaren barne-kontrolaren auditoretza egin zen, Gizarte Segurantzarekin lankidetza duten mutuak gobernatzeko eta zuzentzeko garrantzitsuak diren kudeaketa-praktika egokiei eta gai garrantzitsuei buruzkoa, haren funts publikoak kudeatzen dituzten erakundeak baitira.

Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailletza Nagusiak galdetegi horretan planteatutako gaietako bat da “mutuak Zuzendaritza Batzarraren erregelamenduren bat duen, aplikatu beharreko lege- eta estatutu-araudia garatzen eta osatzen duena, honako hauek ezarrita: batzordeen jarduteko printzipioak, haien antolakuntza eta funtzionamendurako oinarritzko arauak, hautapen, izendapen, berrautapen eta kargu-uzteko arauak, kideen ahalmenak eta betebeharrak, etab.”

Horretarako, Mutualiaren Gobernu Korporatiboaren Politika Orokorrearekin bat etorritik eta “Gobernu Korporatiboaren bultzada – Herritarren enpresa” izeneko 2021-2025 Plan Estrategikoaren Ildo Estrategikoa garatzeko esparruan, Mutualiaren Estatutuen II. tituluko II. kapitulua osatu eta garatu da, Zuzendaritza Batzarrari dagokionez, bai eta Politika Orokor horren gobernu-organoren horri dagozkion atalak ere, ZUZENDARITZA BATZARRAREN ANTOLAKUNTZA ETA FUNTZIONAMENDURAKO BARNE ARAUDI honen bidez. Araudia Zuzendaritza Batzarrak onartu du 2021eko uztailaren 6an egindako bileran; Batzar Nagusiak berretsi du 2021eko uztailaren 16an, ohiko saioan, eta Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiari eskatuko zaio onar dezan.



Araudi hau egiterakoan, oro har, kontuan hartu dira Gobernu Onaren nazioarteko gomendioak, eta, bereziki, Ekonomia Jasangarriari buruzko 2/2011 Legearen 35. artikulua, Gizarte Segurantzarekin lankidetza duten mutuei aplikatzekoa, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ondorioak dituen, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean mutuen araubide juridikoei buruz jasotakoa aldatu zuen abenduaren 26ko 35/2014 Legearen azken xedapenetako laugarrenean xedatutakoaren arabera. Horrek finkatzen duenez, entitate horiek lege horretan adierazitako printzipioetara egokituko dute beren kudeaketa, eta beren plan estrategikoak egokituko dituzte, besteak beste, gobernu korporatiboaren txostenak urtero aurkezteko, baita jasangarritasun-txostenak ere, eskuarki onartzen diren estandarren arabera, arreta berezia eskainiz emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunari eta ezgaitasuna duten pertsonen erabateko integrazioari, bai eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu korporatibo onari buruzko 19/2013 Legearen eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen printzipioak eta beste alderdi batzuk, eta Gizarte Segurantzarekin lankidetza duten mutuen zuzendaritza, zaintza, kontrol eta fiskalizazioko organoen jarraibideak, zirkularrak eta gomendioak ere.





ATARIKO TITULUA

1. artikulua.- Definizioa eta xedea

- 1.1.- ZUZENDARITZA BATZARRAREN ANTOLAKUNTZARI ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO BARNE ARAUDI hau (aurrerantzean, "Araudia") bere Gobernu Korporatiboaren Sistemaren parte da, eta, indarrean dagoen legeria betez, osatzen ditu erakundearen Estatutu sozialak eta Gobernu Korporatiboaren araudia, eta Mutualiako Zuzendaritza Batzarraren garapen osagarria eta ordenazio berariazkoa eta zehatza, zeinak, era berean, lege, arau, estatutu eta gobernu korporatiboaren araubidea osatzen eta garatzen baitu.
- 1.2.- Helburua Printzipio Orokorrak eta jarduteko printzipioak osatzea da, bai eta Politika Orokorrean aurreikusitako Mutualiako Zuzendaritza Batzarraren antolakuntza eta funtzionamendurako oinarritzko arauak ere, entitatearen, bere interes-taldeen eta Gizarte Segurantzarekin dituen lankidetzaz-zerbitzuen hartzaileen interesa garatu eta lortzeko eginkizunetan ahalik eta gardentasun, parte-hartze, eraginkortasun, kudeaketa etiko, erantzukizun eta kontrol handiena bermatzeko, beren eskubide guztiak, baita linguistikoak ere, erabiliko dituztela bermatuta, eta kontuak ematen dizkieten erakunde eta gizarteei etengabe lotuta.

2. artikulua.- Irismena

- 2.1.- Araudi hau aplikatuko zaie Zuzendaritza Batzarrari, haren batzorde delegatuei, Mutualiarekin elkartutako pertsona fisiko eta juridikoei, horien ordezkari diren pertsona fisikoei eta mutualitateko langileen ordezkari diren pertsona fisikoei, eta erakundeari atxikitako langileen ordezkari gisa beren kontura edo autonomo modura diharduten langileei.
- 2.2.- Araudi hau aplikatu behar zaien Zuzendaritza Batzarreko kideek, ordezkariak eta karguek Araudia ezagutu, bete eta betearazi beharko dute; horretarako, ale eguneratu bat izango dute eskura, eta hori hartu izanaren adierazpena sinatuko dute..

3. artikulua.- Bertsio elebiduna eta hedapena

- 3.1.- Araudi hau Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan onartuko eta idatziko da, eta biak izango dira benetako bertsioa. Testua ulertzeko zalantzak izanez gero, gaztelaniazko bertsioaren zentzua eta esanahia lehenetsiko dira, kontuan hartuta Entitateak Espainiako estatu osoan duen jarduera-eremua.
- 3.2.- Araudi hau eta bere ondorengo aldaketak mutualitatearen Zuzendaritza Batzarrak eta Nagusiak onartu ondoren, ministerio eskudunaren zuzendaritza- eta tutoretza-organoari jakinaraziko zaio, hark onetsi dezan.
- 3.3.- Araudi honetan indarrean dagoen testu eguneratu elebiduna beti egongo da eskuragarri Mutualiaren gardentasun-atarian, web-orri korporatiboaren barruan.



4. artikulua.- Arauen lehentasuna eta interpretazioa

- 4.1.- Araudi honek garatu eta osatu egiten du aplikatu beharreko lege-, erregelamendu- eta estatutu-mailako araudia, eta hori nagusituko da hemen xedatutakoarekin kontraesanean egonez gero.
- 4.2.- Araudi honen interpretazioari eta aplikazioari buruz sor daitezkeen zalantzak Zuzendaritza Batzarrak berak argituko ditu, eta, presako kasuetan, presidenteak.

5. artikulua.- Onestea, indarraldia eta aldatzea

- 5.1.- Zuzendaritza Batzarrak, gai-zerrendako puntu hori barne hartzen duen bileran dauden kideen bi herenek (2/3) gehiengoz hartutako akordioaren bidez, Araudi hau onartuko edo, hala badagokio, aldatuko du, eta bi erabakiak Batzar Nagusiak berretsi beharko ditu. Ondoren, mutualitateen zuzendaritza- eta tutoretza-organoari hori onesteko eskatuko zaio; izan ere, Erakundearen Estatutuak garatzen etaosatzen dituen araudi izaera du.
- 5.2.- Araudi hau aldatzeko ekimena Zuzendaritza Batzarreko presidenteari dagokio, edo Batzarreko kideen herenari (1/3). Ekimena arrazoitzeko, egin nahi den aldaketaren arrazoiei eta irismenari buruzko memoria aurkeztu beharko da. Aipatutako aldaketa-proposamenari buruz iritzia eman behar duen Zuzendaritza Batzarreko bilera egin baino lehen, kideen eskura jarriko da justifikazio-memoria honen testu osoa, gutxienez hiru egun lehenago.
- 5.3.- Araudi hau, nahiz egindako aldaketak, mutualitateen zuzendaritza- eta tutoretza-organoek onesten dituzten unean sartuko dira indarrean.





I. TITULUA.- PRINTZPIOAK ETA ESKUMENAK

6. artikulua.- Printzipio orokorrak

Zuzendaritza Batzarreko kide diren enpresaburu elkartuek, haien ordezkari diren pertsona fisikoek, erakundeko langileen ordezkari diren pertsona fisikoek eta mutualitateari atxikitako langileen ordezkari diren beren konturako langileek Araudi honetan osatutako Politika Orokorraren 4.1 puntuan ezarritako printzipio orokor hauek bete beharko dituzte:

- 1.- Gardentasunez jardungo dute agindutako eginkizunak kudeatzean, legezketasunaren, eraginkortasunaren, ekonomiaren eta efizientziaren printzipioen arabera, eta mutuaren interes orokorrak asetzeko helburuarekin.
- 2.- Beren eginkizunak beteko dituzte printzipio horien kontrako jokabiderik izan gabe.
- 3.- Inpartzialtasunaren printzipioa errespetatuko dute, irizpide objektiboa, independentea eta interes partikular orotatik kanpokoak izateko. Interes-gatazkak sortzen dituzten jarduerak saihestuko dituzte.
- 4.- Tratu bera eta inolako bereizkeriarik gabea bermatuko dute beren eginkizunak betetzerakoan, eta tratu bera emango diete bazkide guztiei, bai eta baldintza berdinetan dauden zerbitzuen eta prestazioen erabiltzaile eta onuradunei ere, jarduerak eta gaitasunak garatzean hizkuntza-berdintasuna errespetatzea eta euskararen erabilera aktiboki sustatzea barne hartuta, erakundeko kide, interes-talde eta erakundeekiko harremanetan, hitzunen arteko berdintasuna sustatuz.
- 5.- Beren eginkizunak behar den arretaz beteko dituzte eta kalitatea sustatuko dute Gizarte Segurantzarekin lankidetzan aritzeko zerbitzu publikoak egitean, zerbitzu horien kudeaketa eraginkorra eta arina dela bermatuz.
- 6.- Jokabide duina izango dute, eta zuzentasun handiz tratatuko dituzte pertsonak, giza eskubideen eta askatasun publikoen errespetua sustatuta. Mutuaren jarduerarekin zerikusia duten interes-taldeak ere kontuan hartuko ditu, batez ere langile babestuak, enpresa elkartuak eta atxikitako langile autonomoak eta haien ingurune soziala.
- 7.- Beren gain hartuko dute beren erabakien eta jardueren erantzukizuna, bai eta kide diren organoena ere, legez eska daitezkeen beste batzuei kalterik egin gabe.
- 8.- Neurriak hartuko dituzte administrazio-egitura arrazionalizatzeko, sinplifikatzeko eta iraunkor izateko, bai eta erabiltzaileak zerbitzu eta prestazio publikoetara zuzenean sartzeko ere, jarduera etikoa, eraginkorra, efiziente eta gardena bermatuta.
- 9.- Erakundearen berritzeko gaitasuna sustatuko dute, kalitatezko zerbitzuak egiten lagunduko duten ikerketa- eta berrikuntza-politikak garatuz.



- 10.- Energia-aurrezkia eta -efizientzia. Energia-aurrezkiak eta -efizientziak ekarpena egin behar diote iraunkortasunari, kostuak murriztuz, energia-mendekotasuna arinduz eta zerbitzu publikoak egitean baliabide naturalak zainduz.
- 11.- Energia garbiak sustatzea, emisioak murriztea eta hondakinak eraginkortasunez tratatzea. Energia- eta ingurumen-politikak ezarriko dituzte, garapen ekonomikoa bateratzeko emisioen eta sortutako hondakinen eta horien tratamenduen kostu soziala minimizatzearekin.
- 12.- Hezkuntzaren kalitatea zabaltzea eta hobetzea eta etengabeko prestakuntza sustatzea. Erakundeko kideen eta haien zerbitzu eta prestazioen erabiltzaileen hezkuntza eta etengabeko prestakuntza zabaltzea eta hobetzea bultzatuko dute, eta, horretarako, ezagutza- eta betetze-kultura egokia sustatuko dute, gizartearen kohesioa eta herritarren garapen pertsonala hobetzeko tresna gisa.

7. artikulua.- Jarduteko printzipioak

Era berean, Zuzendaritza Batzarreko kideek eta haien ordezkariak eta aurreko artikuluan adierazitako pertsona fisikoek beren jarduera egokitu eta eginkizunak eta eskumenak beteko dituzte, Araudi honetan osatutako Politika Orokorretan ezarritako jarduera-printzipio hauei jarraikiz:

- 1.- Mutuei aplikatu beharreko araudia, Mutualiaren Estatutuak eta erakundearen gobernu korporatiboari aplikatu beharreko araudia erabat errespetatuz beteko dituzte beren eginkizunak, eta betetzeko kultura egokia sustatuko dute.
- 2.- Zuzendaritza Batzarraren eta, hala badagokio, haren ordezko batzordeen bileretara joango dira. Eztabaidetan eta deliberazioetan parte hartuko dute, beren irizpidea eta iritzia emango dituzte, eta aztertze beren esku uzten dituzten gaiak onartu edo eragozpenak jarriko dizkiete.
- 3.- Isilpekotzat jotzen diren egitateei eta lortutako informazioari buruzko konfidentzialtasuna gordeko dute, bai eta beren eginkizunetan parte hartu duten eztabaidei buruzkoa ere, eta dagokion xederako erabiliko dute. Bere eginkizunari utzi ondoren eginkizun honek iraungo du.
- 4.- Hartutako erabakiak errespetatuko dituzte, eta proposatuak diren Zuzendaritza Batzarraren ordezko batzordeetako karguak edo kideak izendatzen parte hartuko dute.
- 5.- Irregularitasunen bat izanez gero, horren berri emango diete organo eskudunei.
- 6.- Indarrean dagoen araudiak xedez esleitzen dizkien eginkizunak beteko dituzte, eta mutuei lege esleitutako funtzioak eta eskumenak behar bezala betetzea izango dute helburu, emandako xedeetarako erabiliz soilik, eta mutuaren interes publikoa edo ondarea arriskuan jar dezakeen ekintza oro saihestuko dute.
- 7.- Ez dira inplikatu beren eginkizunekin bateraezinak diren egoera, jarduera edo interesetan, eta ez dute parte hartuko beren objektibotasunean eragina izan dezakeen kausaren bat dagoen gaitan.



- 8.- Ez dute onartuko ohiko erabilerak, sozialak edo kortesiazkoak gainditzen duten oparirik, ez eta beren eginkizunak baldintzatu ditzaketen mesederik edo zerbitzurik ere, baldintza onuragarrietan.
- 9.- Gardentasunez beteko dituzte beren eginkizunak.
- 10.- Baliabide publikoak eta erakundearen baliabide pribatiboak modu arduratsu eta eraginkorrean kudeatu, babestu eta kontserbatuko dituzte. Baliabide horiek ezin izango dira erabili aplikatu beharreko araudiak onartzen ez dituen jardueretarako, eta Gizarte Segurantzaren iraunkortasuna bultzatuko dute.
- 11.- Ez dira mutuan duten mailaz baliatuko abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko.
- 12.- Erakundeak irabazi-asmorik ez duela eta, ondorioz, enpresa elkartuak eta atxikitako langileak erakartzeko debekua betetzen dela bermatuko dute.
- 13.- Administrazio publikoekin behar den arduraz lan egin eta lagunduko dute haien kudeaketari dagozkion gai guztietan, fede onaren, bidezko konfiantzaren eta erakundeen leialtasunaren printzipioei jarraituz.
- 14.- Gizarte Segurantzarekin lankidetzaren mutuen arteko lankidetzaren esparruan zintzo jardungo dute, aurreko puntuan adierazitako printzipioekin bat etorriz.
- 15.- Zuzendaritza Batzarra osatzen duten pertsona fisiko eta juridiko guztiek aurreko printzipio orokorrak eta jarduteko printzipioak betetzen dituztela zainduko dute.

8. artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren eskumenak

- 8.1.- Zuzendaritza Batzarra kide anitzeko organoa da, presidenteak ordezkaturia, eta hari dagozkio erakundearen zuzeneko eta berehalako gobernua, haren ordezkaritza osoa eta haren ondare- eta gizarte-interesak defendatzeko beharrezkoak diren zuzendaritza-, administrazio-, xedapen- eta betearazpen-ahalmen guztiak, aplikazio-araudian eta estatutu sozialetan ezarritakoak baino muga gehiago izan gabe; mutuak administratzeko eta ordezkatzeko ahalorde eta ahalmen handienak ditu.
- 8.2.- Adibide gisa eta ez muga gisa, Zuzendaritza Batzarraren eskumenak Mutualiaren Estatutuen 23. artikuluan zerrendatuta daude, eta Gobernu Korporatiboari buruzko berariazko eskumenak Politika Orokorrean sartu dira. Gainera, estatutu edo araudiko beste artikulua batzuetan eta zuzendaritza- eta tutoretza-organoren jarraibide zehatzetan, ezartzen da Zuzendaritza Batzarrak gai jakin batzuk ezagutu, aztertu eta, hala badagokio, horien inguruan erabakiak hartu behar dituela.

Horien guztien laburpena, eta, ikuspuntu praktikotik, normalean errepikatzen direnak hurrengo taulan agertzen dira, horiek erabiltzeko datekin edo bakoitzaren erabaki-hartzearekin:



Zuzendaritza Batzarraren eskumeneko gaiak Gobernu korporatiboa

Akordioaren aldia/dat

Gobernu Korporatiboaren Sistema diseinatzea, onartzea, ebaluatzea eta berrikustea	Iraunkorra
Eginkizuna, Balioak eta Xedea onartzea eta berrikustea	3/5 urtean behin
Kode Etikoa eta haren berrikuspenak onestea	Iraunkorra
Plan eta helburu estrategikoak onestea	3/5 urtean behin eta urtero
Arrisku Penalak Prebenitzeko Sistemaren (Compliance Penal) "zuzendaritzaren berrikuspena" dokumentua onestea	Urtero
Politika korporatiboak eta haien berrikuspenak onestea	Iraunkorra
Komunikazio eta Salaketako Barneko Kanala eta haren berrikuspenak onestea	Iraunkorra
Batzorde delegatuen erabakiak berrestea, gainbegiratzea, haien funtziona- mendua ebaluatzea, eta Hutsuneen Ekintza Plana onartzea	Hurrengo bilera/urtekoa
Egiletsi beharreko ahalorde orokorren egitura eta emandako ahalordetzeak arautuko dituzten arau orokorrak definitzea	Entitatea eratzean eta iraunkorra

Mutualitateei aplikatu beharreko araudia

Gobernu eta parte-hartzeko organoetara joateagatiko konpentsazioen zenbatekoak berrikustea	KE eta ZBen urteko 1. bilera
Gizarte Segurantzaren Ondarearen eta Ondare Historikoaren kudeaketaren arlo estrategikoen jarraipena	Iraunkorra
Zuzendaritza Batzarreko kideak izendatzeko eta Zuzendaritza Batzarreko kideen ordezkariak aldatzeko proposamena.	Iraunkorra
Zuzendaritza Batzarreko karguak eta batzordeak izendatzea (batzordeetako presidentea izan ezik, Zuzendaritza Batzarrean kargu hori duen pertsona izango baita).	Urteko Ohiko Batzar Nagusiaren ondoko 1. bilera ZBko karguetan
Lurralde Batzordeko kideak izendatzea	Iraunkorra
Prestazio Berezien Batzordean enpresaburu elkartuen ordezkariak izendatzea	Iraunkorra
Prestazio Berezien Batzordearen urteko kudeaketa-txostena onartzea	Ohiko Batzar Nagusiaren aurreko bilera
Aurrekontu-kredituak aldatzeko espedienteak onartzea, zuzendari kudeatzailerari emandako kreditu-aldaketak izan ezik, azken horien berri hurrengo ZBari ematea baztertu gabe.	Iraunkorra
Osasun-itunak onartzea bitarteko pribatuekin	Iraunkorra
Ekimen eta Jarduera Sozialen Taldearen urteko txostena eta aurrekontua onartzea.	ZBaren urteko 1. bilera
Ohiko/Ezohiko Batzar Nagusien deialdia onartzea	Martxoko urteko bilera eta ezohiko bilerak egin behar direnean
Urteko Kudeaketa Planaren itxiera onartzea, formulatzea eta kontuak ematea	Martxoko eta uztaileko urteko bilerak
Zuzendari kudeatzailearen eta eginkizun exekutiboak dituzten goi-karguen ordainsariak berrikustea eta urteko helburuak onartzea, bai eta haien ordainsaria, urteroko berrikuspenak eta betetze operatiboko helburu kopurua ere, osagarri aldakorrean dituen ondorioekin	Urteko 1. bilera, goi-kargudunak izendatu aurretik, eta kontuen formulazioa onartzeko urteko bileran



Finantza Inbertsioen Batzordearen urteko txostena onartzea, finantza-inbertsioen politikaren betetze-mailari buruzkoa	Ohiko Batzar Nagusiaren aurreko bilera
Osasun-zentroak eta/edo administrazio-zentroak sortzea, aldatzea, lekualdatzea eta ixtea onartzea, bai eta horien ondoriozko inbertsioak ere	Iraunkorra
Gobernu Korporatiboaren Memoria eta Urteko Txostena onartzea	Ohiko Batzar Nagusiaren aurreko bilera
Gizarte Segurantzaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetza eta Kontu Auzitegiaren auditoretza-prozedurei buruzko txostenen, proposamenen, errekerimendu ez-arrunten, ebazpenen eta epaien jakinarazpenen jarraipena egitea eta, hala badagokio, onartzea	Iraunkorra
Zuzendaritza eta tutoretza organoek (Gizarte Segurantzaren Estatuko Idazkaritza, Gizarte Segurantzaren Antolaketaarako Zuzendaritza Nagusia, Ekonomia Sozialaren Zuzendariorde Nagusia) jakinarazitako jarraibide, komunikazio eta zirkularren jarraipena	Iraunkorra

II. TITULUA.- ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Estatutuen 24. eta 26. artikuluetan eta Gobernu Korporatiboaren Politika Orokorraren 4 g) puntuan xedatutakoa osatuz eta garatuz:

9. artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren osaera eta kideak eta ordezkariak hautatzeko arauak

9.1.- Zuzendaritza Batzarra kide hauek osatzen dute:

- 10 eta 20 enpresaburu elkartu bitartean; horietatik % 30 langile gehien dituzten enpresenak, ministerio eskudunak araudi bidez ezartzen dituen tartearen arabera zehaztutakoak, erakundeko enpresaburu elkartuen ordezkariak.
- Atxikitako norberaren konturako langile batek, mutualitatera atxikitako norbere konturako langileen ordezkariak.
- Batzar Nagusiko kide den erakundeko langileen ordezkariak.

9.2.- Batzordearen osaeran kontuan hartzen da ordezkariak orekatuaren printzipioa, bai kide diren enpresa elkartuena (txikiak, ertainak edo handiak, langile kopuruaren arabera), erakundearen lurralde-ezarpen handieneko lurraldeetan elkartutako eta babestutako kolektiboaren ordezkariak duten kokapena, bai haien ordezkari diren gizonena eta emakumeena.

9.3.- Zuzendaritza Batzarreko kideak edo haien ordezkaria aukeratzekoan, honako hauek zainduko dira:

- Hautagaien proposamenak pertsona ohoragarrien, egokien eta kaudimen, gaitasun, esperientzia, kualifikazio, prestakuntza, prestasun eta beren funtzioarekiko konpromiso aitortuko pertsonen gaineak direla,
- Zuzendaritza Batzarraren osaeran genero-oreka egokia dagoela,



- c) Euskadiko bi hizkuntza ofizialak jakitea meritu gisa baloratuko dela,
- d) Ez dagoela araudian eta Gobernu Korporatiboaren Sisteman ezarritako bateraezintasunik, debekurik eta eskumen- edo interes-gatazkaren kausarik.
- e) Hautaketa-prozedurek diskriminazioa ekar dezaketen joera inpliziturik ez izatea, eta, bereziki, Zuzendaritza Batzarreko kideen ordezkari diren emakumeen hautaketa ez oztopatzea.

9.4.- Mutualiak, Zuzendaritza Batzarreko kideak berritzeko eta karguen ondorengotza bermatzeko plangintza gauzatzean, dagokion agintaldia amaitzen denean, ekitaldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan egiaztatuko ditu agintaldia urte naturalean amaitzen duten kideak, eta ahalegina egingo du horiek modu mailakatuan eta ordenatuan berritzeko, ekitaldi berean hirurogeita hamar urte betetzen dituzten ordezkarien adina dela-eta aurreikusitako lanpostu hutsei aurrea hartuta, presidentearen, presidenteordearen, idazkariaren eta idazkariordearen karguak berritzeko.

Berritzea dagokion kide eta kargu guztiei Mutualiak formalki jakinaraziko die bere agintaldia edo kargua betetzeko aurreikuspena, eta, era berean, erakundeari jakinaraziko dio agintaldia berritu nahi duen edo ez, edo, hala badagokio, Zuzendaritza Batzarreko kide izaten jarraitu nahi duen, hurrengo Ohiko Batzar Nagusiko kideak eta karguak izendatzeko, aipatutako Batzar Nagusiaren hurrengo Zuzendaritza Batzarraren lehenengo bilkuran.

9.5.- Araudia aldatzeagatik, Zuzendaritza Batzarreko kideak, presidenteari formalki jakinarazita, bere borondatez kargua uzteagatik, Mutualiako kide edo atxiki izateari uzteagatik, bai eta Gobernu Korporatiboaren araudia, eta bateraezintasunen eta debekuen araubidea ez betetzeagatik kargutik kentzeko arrazoiengatik ere, lanpostu hutsak behin-behinean beteko dira Zuzendaritza Batzarrak proposatuta, elkartutako enpresaburuak eta atxikitako langile autonomoak formalki eskatu ondoren.

Entitateko kide elkartu eta atxiki guztiek dute Zuzendaritza Batzarreko kide hautatuak izateko postulazio-askatasuna. Horretarako, urtero, maiatzean, erakundearen webgunean argitaratuko dira erakundearen osaera eta bete daitezkeen lanpostu hutsak, hautagaitzak aurkezteko epearekin batera.

Bete beharreko lanpostu bakoitzerako hautagaitza bat baino gehiago aurkezten badira, eta Zuzendaritza Batzarrak dagokion balorazioa egin dezan, gobernu-organo horrek hautagai posibleak gonbidatu ahal izango ditu haren bilera batean parte hartzera, non hautagai guztiek azalduko dituzten proposamenak eta horiek aurkezteko arrazoiak.

9.6.- Politika Orokorraren II. eranskinean jasota daude kideak berritzeko eta horien ordezkarien, bai eta Zuzendaritza Batzarreko karguen ondorengotza bermatzeko planak, Zuzendaritza Batzarreko presidentearen ondorengotza-plana barne.



10. artikulua.- Zuzendaritza Batzarreko karguak

10.1.- Zuzendaritza Batzarrak honako kide hauek hautatuko ditu bere kideen artean: presidente bat, hiru pertsona 1., 2. eta 3. presidenteordetzetarako, idazkari bat eta idazkariorde bat. Gainerakoek bokal kargua izango dute.

Hautaketa horretan, eta PRESIDENTE eta PRESIDENTEORDEEN karguei dagokienez, gutxienez kideen bi herenen aldeko botoa beharko da.

Gainera, PRESIDENTEORDEAK hautatzerakoan, erakundearen lurralde-ezarpen handieneko eremuetan elkartutako eta babestutako kolektiboaren ordezkaritza orekatuaren printzipioa hartuko da kontuan. IDAZKARI eta IDAZKARIORDE karguak hautatzean, lehentasunezko meritutzat hartuko da izendatutako pertsonen Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak jakitea.

10.2.- Zuzendaritza Batzarreko PRESIDENTEAREN eskumenak:

- a) Hala badagokio, zuzendari kudeatzaileari irizpideak, jarraibideak eta argibideak ematea.
- b) Gobernu-organoaren eta haren batzorde delegatuen aktak eta erabakien ziurtagiriak ikus-onestea.
- c) Indarrean dagoen araudian, estatutu sozialetan, Gobernu Korporatiboaren sistemako arauetan eta Araudi honetan xedatutakoa betetzea eta betearaztea.

10.3.- Zuzendaritza Batzarreko IDAZKARIAREN eskumenak:

- a) Zuzendaritza Batzarraren bilera-deialdiak sinatzea, presidentearen aginduz.
- b) Gaiak bideratzeko prestatzea, eta Zuzendaritza Batzarraren mota guztietako bileren aktak idatzi eta baimentzea, presidentearen oniritziarekin.
- c) Zuzendaritza Batzarraren akten eta/edo erabakien beharrezko ziurtagiriak ematea, presidentearen oniritziarekin.
- d) Kideen komunikazio-egintzak jasotzea, hala nola jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo Zuzendaritza Batzarrak jakin beharreko beste edozein idazki.
- e) Zuzendaritza Batzarraren jarduketan legezkotasun formala eta materiala zaintzea, eta erabakiak hartzeko eta eratzeko prozedurak eta arauak errespetatzen direla bermatzea.
- f) Idazkari izateari dagozkion beste eginkizun guztiak.

10.4.- Zuzendaritza Batzarreko karguen ahalmenak. Zuzendaritza Batzarreko karguek erakundearen kudeaketaren edozein alderdiri buruzko informazioa jaso ahal izango dute, baita eragiketen liburuak, erregistroak, dokumentuak eta gainerako aurrekariak aztertu, instalazio guztiak ikuskatu eta goi-zuzendaritzako kideekin komunikatu ere.



Aurreko ahalmen horiek Zuzendaritza Batzarreko presidentearen bidez gauzatuko dira nahitaez, edo, halakorik ezean, presidenteordeen bidez, bakoitzaren hurrenkeraren arabera.

Mutualitateak aplikazio edo biltegi informatiko bat jarriko du Zuzendaritza Batzarreko kideen eskura, Zuzendaritza Batzarrari edo haren batzordeei buruzko komunikazio, aurkezpen, informazio eta dokumentazioetarako sarbidea errazteko. Aplikazio edo biltegi elektroniko horren bidez, Zuzendaritza Batzarreko kideei Zuzendaritza Batzarraren eta haren batzordeen bileren aktetarako sarbidea emango zaie, bai eta presidentek sartzearabakitzen duen bestelako informaziorako sarbidea ere.

- 10.5.- Zuzendaritza Batzarreko kideen eta karguen betebeharrak. Politika Orokorrean jasotako obligazio eta betebeharez gain, mutualitateei aplikatu beharreko araudiak, haien estatutu sozialak, Gobernu Korporatiboaren araudiak eta araudi honek ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Enpresaburu ordenatu baten arretaz eta ordezkari zintzo baten leialtasunez jokatu dute, karguaren izaera eta bakoitzari esleitutako eginkizunak kontuan hartuta, fede onez eta erakundearen eta Gizarte Segurantzaren interesa babestuz, eta mutualitateei aplikatu beharreko araudiaren, haien estatutu sozialen, Gobernu Korporatiboaren araudiaren edo erakundearen eta/edo Gizarte Segurantzaren interesaren aurkako erabakien aurka egin beharko dute, eta beren aurkakotasuna aktan jasotzeko eskatu.

Enpresaburu ordenatu baten diligenzia-estandarra betetzat joko da Zuzendaritza Batzarreko kideak edo karguak fede onez jardun duenean erabaki beharreko gaian interes pertsonalik gabe, informazio nahikoarekin eta erabakitzeko prozedura egoki baten arabera.

Zuzendaritza Batzarra osatzen duten ordezkariak funts publikoen kudeaketatik eratortzen diren erantzukizunak ezagutzen eta onartzen dituztela adieraziko dute, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 91.4 artikuluan eta Aurrekontuen Lege Orokorren 176. artikuluan, eta, hala badagokio, erantzukizunak arautzen dituzten beste arau batzuetan xedatutakoaren arabera, eta urtero sinatu beharko dituzte beharrezkotzat jotzen diren adierazpen- eta/edo konpromiso-agiriak, baldintzei, betekizunei, bateraezintasunei eta debekuei buruz eska daitekeen DILIGENTZIA behar bezala jasota gera dadin.





11. artikulua.- Interes-gatazken kasuetan jarduteko arauak

Mutualitateei aplikatu beharreko araudian aurreikusitako egoeretan, interes-gatazkak daudela ulertuko da, eta, bereziki, Zuzendaritza Batzarreko kidearen edo karguaren INTERESEK TALKA egiten dutenean, zuzenean edo zeharka, erakundearen interesarekin eta Gizarte Segurantzarenarekin, bai eta erakundearekiko eta Gizarte Segurantzarekiko dituen betebeharrekin ere.

Interesa IZANGO DA, gaiak pertsonalki eragiten dionean kide edo karguari, edo lotura duen pertsona bati.

Araudi honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira LOTURA DUTEN PERTSONATZAT:

- a) Ezkontidea edo antzeko afektibitate-harremana duen pertsona.
- b) Bere aurrekoak, ondorengoak eta anai-arrebak, edo ezkontidearenak (edo antzeko afektibitate-harremana duen pertsonarenak).
- c) Aurrekoen, ondorengoen eta anai-arreben ezkontideak.
- d) Pertsona juridikoak edo erakundeak, baldin eta kideak edo Zuzendaritza Batzarreko ordezkariak, edo hari lotutako edozein pertsonak, berak bakarrik edo bitarteko pertsona batek, administrazio- edo zuzendaritza-kargu bat betetzen badu, edo edozein arrazoiengatik ordainsariak jasotzen baditu, eta gainera, pertsona juridiko edo erakunde horien erabaki finantzario eta operatiboetan eragin nabarmena badu, zuzenean edo zeharka.

Interes-gatazka sor dezaketen egoerak honako arau hauen arabera kudeatuko dira:

- a) Zuzendaritza Batzarreko kide batek, edo hor kargua duen ordezkari batek, interes-gatazkako balizko egoera baten edo horri buruzko arrazoizko zantzuen berri duenean, idatziz jakinarazi beharko dio Zuzendaritza Batzarreko presidenteari, edo, entitatearen barne-komunikaziorako eta -salaketarako kanalaren bidez, Betetze Korporatiboaren Batzordeari, ahalik eta lasterren. Jakinarazpenak interes-gatazka eragin duen egoeraren deskribapena izango du.
- b) Zuzendaritza Batzarrak interes-gatazka hori dagoen ala ez erabakitzen ez duen bitartean, balizko gatazka-egoeran dagoen kideak edo ordezkariak, prebentzioz, ez du parte hartuko gaiarekin zerikusia duen edozein erabakitan; hala ere, aldez aurretik eman ahal izango du dagokion informazioa interes-gatazkarik dagoen ala ez erabakiko duen bileran.
- c) Zuzendaritza Batzarrak interes-gatazka hori benetan dagoela erabakitzen badu, gatazka-egoeran dagoen kideak edo ordezkariak:
 - a. Interes-gatazka pean dagoen gaiak eztabaidatu eta/edo bozkatzen diren bitartean, bileretatik kanpo egon beharko du, eta kasu horietan bertaratutako kideen kopurutik deskontatuko da, quoruma eta gehiengoak zenbatzeko.
 - b. Gatazka-egoera eragiketa, transakzio edo zirkunstantziaren baten ondorioz sortzen bada, eta eragiketa, txosten, erabaki edo onarpenen bat behar bada, ez du jarduketarik egingo.



12. artikulua.- Zuzendaritza Batzarreko kideen eta kargu horien ordezkarien kargu-uztea

Zuzendaritza Batzarreko kideek, erakundeko langileen ordezkariaren kasuan izan ezik, zeinak bere arauketa baitu, honako arrazoi hauengatik utziko dute kargua:

- a) Bere borondatez, presidenteari formalki komunikatuta.
- b) Hautatuak izan ziren lau urteko agintaldia amaitzeagatik.
- c) Mutualitateko kide edo atxiki izateari uzteagatik.
- d) Batzar Nagusiaren erabakiz.
- e) Mutualitateei eta haien estatutuei aplikatu beharreko araudian ezarritako bateraezintasun-eta debeku-araubidea ez betetzeagatik.
- f) Mutualiaren Kode Etikoa eta Gobernu Korporatiboaren gainerako araudia hausteagatik.
- g) Kapital Sozietateen kontseilari edo administratzaile izateko ezintasun edo debekuagatik.

Zuzendaritza Batzarreko karguen ordezkariak kargua utziko dute aurreko paragrafoko a), e) eta f) eta g) letretan zerrendatutako arrazoiengatik, bai eta Zuzendaritza Batzarreko ordezkatzan duen kideak erabaki duelako ere.

Kargua uzteko erabakia formalki jakinaraziko zaio Zuzendaritza Batzarreko presidenteari, horren arrazoiak azalduz, eta horren berri emango da Gobernu Korporatiboaren urteko txostenean.

Aurreko paragrafoetan adierazitakoari kalterik egin gabe, Zuzendaritza Batzarreko kideek, edo, hala badagokio, karguek, Zuzendaritza Batzarraren esku utzi beharko dute beren agintaldia eta, hala badagokio, kargua, honako kasu hauetan:

- a) Bat-bateko inguruabarrak direla-eta, mutualitateei aplikatu beharreko araudian, estatutuetan eta erakundearen Gobernu Korporatiboaren araudian aurreikusitako bateraezintasun edo debekuren bat dagoenean.
- b) Horietako edozeini egotz dakizkiokeen egitate edo jokabideen ondorioz, Gizarte Segurantzaren ondareari edo mutualitatearen ondare pribatiboari edo erakundearen ospeari kalte larria eragin zaionean, edo Mutualiarentzat erantzukizun penaleko arriskua sortzen denean.
- c) Zuzendaritza Batzarreko kide edo kargu izateko beharrezkoak diren zintzotasuna, egokitasuna, kaudimena, lehia, prestasuna edo eginkizunarekiko konpromisoa galtzen dituztenean. Bereziki, egiten dituen jarduera pertsonalek edo profesionalek edo zuzenean edo zeharka kontrolatzen dituen sozietateek haren egokitasuna arriskuan jar dezaketenean.
- d) Zuzendaritza Batzarrak ohartarazpen larriak egiten badizkie, beren betebeharren bat hautsi dutelako.
- e) Zuzendaritza Batzarrean jarraitzeak arriskuan jar dezakeenean, edozein arrazoiengatik eta zuzenean, zeharka edo hari lotutako pertsonen bidez, mutualitatearen eta/edo Gizarte Segurantzaren interesaren arabera bere eginkizunak leial eta arduraz betetzea.



- f) Izendatzeko arrazoiak desagertzen direnean edo legezko baldintzak betetzeari uzten diotenean.

Aurreko paragrafoan adierazitako edozein kasutan, Zuzendaritza Batzarrak kide edo/ eta karguari eskatuko dio dimisioa eman dezala, eta, ematen ez badu, kide denean Batzar Nagusiari, edo kargu denean hari proposatu ahal izango dio kargu-uztea erabaki dezan; azken kasu horretan, kargua utzi duen pertsonaren ordezkari bat proposa dezala eskatuko dio.

Kargugabetzeko proposamenek eragindako Zuzendaritza Batzarreko karguak bileratik kanpo geratuko dira erabakiak eztabaidatu eta bozkatzen diren bitartean.

13. artikulua.- Zuzendaritza Batzarreko bilerak

13.1.- Estatutuetan aurreikusitako kideen gutxienez heren batek ohiko edo ezohiko deialdia egiteko eskaera idatziz egin beharko dio presidenteari, batera edo bereizita, proposatutako eguna baino 5 egun lehenago gutxienez, eta arrazoiak eta/edo proposatutako gai-zerrendako puntuak adierazita.

13.2.- Zuzendaritza Batzarrak bilkurak eratu, deitu, egin, erabakiak hartu eta aktak bidali ahal izango ditu, bai PRESENTZIALKI, fisikoki, bai URRUTITIK, telematikoki, azken hori ondoren adierazten diren baldintzekin:

- a) Ohiko edo ezohiko bilkurak URRUTITIK, telematikoki egin ahal izango dira, baldin eta Zuzendaritza Batzarreko kideek edo haien ordezkariak beharrezko baliabideak badituzte eta aldez aurretik presidenteari justifikatuta erabakitzen badu, edo, hala badagokio, Zuzendaritza Batzarreko kide gehienek idatziz eskatzen badute, edo aldez aurretik bozkatzen badute. Horrela jasoko da modu horretan egiten den bileraren deialdian eta aktan.
- b) Parte-hartzaileetako GUZTIAK EDO BATZUK leku desberdinetan egon ahal izango dira, baldin eta bitarteko elektronikoen bidez (telefono bidezkoak eta ikus-entzunezkoak ere halakotzat joko dira, bideokonferentzia edo audiokonferentzia anizkoitza edo posta elektronikoa barne), kideen edo haien ordezkarien nortasuna, adierazpenen edukia, adierazpenok egiten diren unea, haien arteko interaktibitatea eta interkomunikazioa denbora errealean eta saioan bitartekoak erabilgarri daudela ziurtatzen bada; eta hala jasotzen bada aktan.
- c) Parte-hartzaile guztiek urrutitik egiten badute, erabakiak kide anitzeko organoaren egoitza dagoen lekuan hartu direla ulertuko da.

13.3.- Ohiko edo ezohiko bilerako DEIALDIA honela egin beharko da:

- a) Gutxienez 5 egun baliodun lehenago, presazko arrazoiak daudenean izan ezik.



- b) Zuzendaritza Batzarreko kide bakoitzari idatziz jakinarazi beharko zaio, ahal dela formatu elektronikoan, bitarteko telematikoen bidez, eta honako hauek adieraziko dira: data, ordua (1. eta 2. deialdian, gutxienez 30 minutuko aldearekin), tokia eta gai-zerrenda; saioa zein baldintzatan egingo den dagokion justifikazioarekin; konexio-sistema; eta, hala badagokio, bileran pertsona guztiek edo batek urrutitik parte hartzeko behar diren baliabide teknikoak zein tokitan dauden.
- c) Behar izanez gero, aurretiaz eztabaidatu, ezagutu eta/edo aztertzeko beharrezkoa den informazioa eta/edo dokumentazioa ere emango dira, bitarteko telematikoen bidez, ahal dela formatu elektronikoan, edo hori dagoen gune elektronikorako esteka emango da.

13.4.- Hala eta guztiz ere, Zuzendaritza Batzarraren EZOHKO eta PREMIAZKO bilkuretarako deialdia egiteko, deialdia jasotzea ahalbidetzen duen edozein bide erabili ahal izango da. Kasu honetan, ez dira aplikatuko aurreko paragrafoetan aipatutako deialdietarako betekizunak eta formalitateak, baldin eta inguruabarrek hala justifikatzen badute presidentearen iritziz eta deialdian hala adierazten bada.

13.5.- Presidenteak erabakiko du bilkurako GAI-ZERRENDARI buruz. Hala ere, Batzarreko kideen herenak gutxienez idatziz eskatzen badu, behar bezala justifikatuta eskatu ahal izango dio presidenteari gai-zerrendan gaiak sartzeko, eta presidenteak nahitaez sartu beharko du, eskaera bilkura egiteko aurreikusitako eguna eta ordua baino berrogeita zortzi ordu lehenago gutxienez jasotzen bada.

Ezin izango da eztabaidatu edo erabaki gai-zerrendan ez dagoen gairik, salbu eta batzarkide GUZTIAK bertaratzen badira edo bertaratuen gehiengoaren aldeko botoak gaia PRESAKOTZAT jotzen badu, hurrengo 15.4 artikulua azken paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe.

13.6.- Bilkurak egiteko, eztabaidatzeko eta erabakiak hartzeko, Batzarrak quorum nahikoa izango du eta BALIOZKOTZAT joko da, lehenengo deialdian, AURREZ AURRE (edo, hala adostuz gero, URRUTITIK, modu telematikoan) parte hartzen dutenean, gutxienez kideen erdiak gehi batek, ez zazpi baino gutxiagok, eta bigarren deialdian, berriz, ordu erdi geroago, gutxienez zazpi kidek; eta, betiere, PRESIDENTEAK eta IDAZKARIAK, edo haien ordezkoeak.

Zuzendaritza Batzarreko presidenteari dagokio, edo haren ordezkoiari, bilera hasteko quorum nahikoa dagoen edo ez erabakitzea.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa betez, bilera batera joaterik ez badago, Zuzendaritza Batzordeko kideek Zuzendaritza Batzordeko beste kide bati eskuordetu ahal izango diote beren ordezkaritza, Presidenteari idatziz jakinarazita, bilera egiteko aurreikusitako eguna eta ordua baino berrogeita zortzi ordu lehenago, gutxienez. Kasu horretan, ez da eskubiderik sortuko 14. artikuluan aurreikusitako konpentsazioa jasotzeko.

Zuzendaritza Batzordeko Presidenteari edo haren ordezkoiari dagokio bilera hasteko quorum nahikoa dagoen ala ez erabakitzea.

Erabakiak bertaratutakoen eta ordezkatutakoen gehiengo soilez hartuko dira, eta Presidentearen kalitateko botoak ebatziko ditu berdinketak.



- 13.7.- Presidenteak, edo haren ordezkioak, behar diren neurriak hartu beharko ditu, inguruabarrek hala justifikatzen dutenean, Zuzendaritza Batzarraren bilkuretan izaten diren eztabaiden eta hartzen diren erabakien konfidentzialtasuna bermatzeko; horretarako, Zuzendaritza Batzarreko kideen ordezkariak edo haien bileretara joaten diren beste batzuei behar bezalako konfidentzialtasunezko eta arretazko konpromisoak izenpetzeko eskatu ahal izango zaie.
- 13.8.- Bilerara bertaratutako pertsona guztiak ados badaude, eta datuak babesteko eskubideei buruzko informazioa jaso ondoren berariaz hala adierazten badute, Zuzendaritza Batzarrak egiten dituen bilkurak grabatu ahal izango dira (audioan eta bideoan).

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren eta haren Batzordeen bileretara bertaratzeagatiko konpentsazioak

Estatutuen 25.4 artikuluan eta Gobernu Korporatiboaren Politika Orokorrean ezarritakoa osatuz, Zuzendaritza Batzarreko kideak, edo gobernu-organo horren bai eta haren Eskuordeko Batzordearen, Batzorde Exekutiboaren, Etika Batzordearen, Auditoretza Batzordearen eta Ordainsarien Batzordearen bileretara joaten den ordezkariak Zuzendaritza Batzarrak urte bakoitzeko lehenengo bileran erabakitako bertaratzeagatiko konpentsazioak jasoko dituzte, araudi aplikagarrian Mutualiarentzat ezarritako mugak kontuan hartuta.

Era berean, konpentsazio hori jasoko da urrutiko bilera horietan parte hartuz gero, komunikazio telematikoko sistemen bidez, aurreko 13.2.b) artikuluan aurreikusitako betekizunekin. Hala ere, horrela egindako bilera nahiz Zuzendaritza Batzarraren batzorde delegatuen bilera erakundearen ondare historikoaren kontura izango dira, salbu eta mutualitateen aplikazio araudiak edo jurisprudentziak Gizarte Segurantzaren Ondarearen kontura finantzatzea zehazten badu.

Zuzendaritza Batzarraren eta haren batzordeen bilkuretara (aurrez aurrekoak nahiz urrutikoak) bertaratzeagatiko konpentsazioak benetan ordaintzeko, bertaratzeak egiaztatu ondoren, bilera egin eta gehienez ere 5 egun balioduneko epean, ordainketa-aginduaren dokumentu bat egingo da, non konpentsazioak jasoko dituzten ordezkarien edo kideen zerrenda, zenbateko gordinak eta garbiak, atxikipen fiskala eta ordainketako banku-kontuaren zenbakia jasoko diren. Dokumentu hori mutualitatearen administrazio-zerbitzu ekonomikoei zuzenduta dago, eta zuzendari kudeatzaileak edo hark eskuordetzen duenak sinatuko du, dagokion bilkuran jardun duen idazkariaren oniritziarekin.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzarraren aktak eta akta-liburua

- 15.1.- Zuzendaritza Batzarraren bilera guztien aktak egingo dira, eta gobernu-organo honen akta-liburuan transkribatuko dira. Liburu horrek behar bezala beteta egon beharko du, indarrean dagoen araudiak eskatzen duenaren arabera.
- 15.2.- Arautegiak eta betetzeko eta elektronikoki izenpetzeko prozedurek horretarako aukera ematen badute, Zuzendaritza Batzarrak alde aurretik erabakita, akta-liburuak formatu elektronikoa soilik izan dezake, eta, kasu horretan, idazkariak eta presidenteak elektronikoki sinatutako aktak izan beharko dira; hori guztia paperezko kopia bat inprimatzeko eta gordetzeko aukera alde batera utzi gabe, baina jatorrizkotzat joko dira formatu elektronikokoak, elektronikoki sinatutakoak.



15.3.- Zuzendaritza Batzarreko idazkariak akta berrikusi, baliozkotu eta sinatuko du, Zuzendaritza Batzarreko presidentearen oniritziarekin eta sinadurarekin.

15.4.- Aktan honako hauek zehaztu beharko dira nahitaez: bertaratuak, bilerako gai-zerrenda, ohikoa edo ezohikoa den, bilera non eta noiz egin den, bileran ordezkari guztiak edo batzuk bitarteko telematikoen bidez urrutitik edo aurrez aurre parte hartu duten, eztabaiden puntu nagusiak, eta hartutako erabakien edukia, kideen ordezkarien esku-hartzeak barne, baldin eta horiek jasota geratzea berariaz eskatzen badute, edo idazkariaren iritziz, eztabaiden zentzua ulertzeko garrantzitsuak badira.

Horrez gain, idazkariak jasoko du bitarteko telematikoen bidez urrutitik parte hartu duten pertsonen alde aurretik egiaztatu dutela beren nortasuna, edo nabaritasunagatik aitortzen zaiela; egiaztatu dela behar diren bitarteko elektronikoak badituztela eta sistema ondo dabilela eta bideo- eta audio-seinaleak bileran zehar denbora errealean transmititzen direla, bai eta bileran bertan daudela ere.

Aktan hala justifikatzen den aparteko eta presazko premiarik izanez gero, aktan sartu ahal izango da bileraren dataren ondoren hartutako erabakia eta/edo gaia, alde aurretik posta elektronikoz jakinarazita eta eskatuta gaia sartzea, eta bilkurara joan ziren pertsona guztiek bide beretik adierazita gaiaren eta/edo akordioaren testuaren gaineko adostasuna edo eragozpenak. Horri buruz emandako botoak jaso beharko dira, eta baiezkoa bada, gaia edo/eta erabakia bileran bertan onartutzat joko da.

15.5.- Bilkura bakoitzaren akta bileraren amaieran edo Zuzendaritza Batzarraren hurrengo bileran onartu ahal izango da, honako honen arabera:

- a) Idazkariak aktaren zirriborro bat bidaliko du, posta elektronikoz Zuzendaritza Batzarreko kideen ordezkarien eskura dagoen gune elektroniko batera. Bertaratuek, bide elektroniko berberen bidez, testuarekiko adostasuna edo eragozpenak adierazi ahal izango dituzte, testua onar dadin; baiezkoa bada, bileran bertan onartutzat joko da, eta horren guztiaren eginbidea aktan bertan egingo da. Hiru egun balioduneko epean erantzunik ematen ez bada, bidalitako zirriborroari oniritzia ematearen baliokidea izango da.
- b) Aurreko paragrafoan aurreikusitako prozedurarik ez badago, akta Zuzendaritza Batzarraren hurrengo bileran irakurri eta onartu beharko da. Bilerak beharrik gabe ez luzatzeko, Zuzendaritza Batzarreko kide guztiei zirriborro bat alde aurretik eskura jarri bazaie, irakurritzat jo ahal izango da, zuzenean erabaki ahal izateko bilera horretan onartu ala ez.

15.6.- Bilkura grabatu bada, horren ondoriozko fitxategia, idazkariak horren benetakotasun eta osotasunari buruz emandako ziurtagiria eta bilkurako dokumentu gisa euskarri elektronikoan erabiltzen diren dokumentu guztiak bilkuren aktarekin batera aurkeztu ahal izango dira. Kasu horretan, ez da beharrezkoa izango aktan gai-zerrendako puntuak eta hartutako erabakiak baino jasotzea.

Euskarri elektronikoan egindako bilkurak grabatzea erabaki bada, fitxategi elektroniko horien osotasuna eta benetakotasuna bermatzeko moduan gorde beharko dira, bai eta Zuzendaritza Batzarreko kideen ordezkariak horietarako sarbidea dutela bermatzeko moduan ere.

15.7.- Interes legitimoa egiaztatzen duten pertsonen Zuzendaritza Batzarreko idazkariarengana jo ahal izango dute, hartutako erabakien ziurtagiria eman diezaien, erabaki horiek eragiten badiete. Ahal dela, bitarteko elektronikoen bidez emango da ziurtagiria, salbu eta interesdunak berariaz kontrakoa adierazten badu. Emandako ziurtagiri guztien kopia gordeko da, ahal dela formatu elektronikoan.

2021eko uztailaren 6an.
Zuzendaritza Batzarraren egun horretako bileran onetsia.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko uztailaren 16an.
Egun horretako Ohiko Batzar Nagusian onetsia.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA

IDAZKARIORDEA

Urtza Errazti y Olatecoechea jn.

Javier Ortega Tapia jn.



mutualia
